Berrie-Mile


Miguel Altuna LHIIko aldizkaria

2021 iraila - 2022 Otsaila

//Aurkibidea



1. Kuxkuxeroak
2. Albiste izan dira...
3. Lanbide Heziketan aldaketa
4. Agenda
5. Denbora pasa



MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

1. KUXKUXEROAK



Joxu Arana Oregi.
Miguel Altuna LHIIko Zuzendaria.



Agotz Iturbe Murgiondo eta Alayn Carazo Iturriaga.
Kutxa Fundazioaren Ikasketa Amaierako Sarituak.

Fabrikazio Adimenduna Espezializazioko lan-taldeari elkarrizketa.

Mikel Bayer Miguel Altunako irakaslea: Autokontsumo fotovoltaikoa hizketagai.

* Joxu Arana Oregi

Miguel Altuna Lanbide Heziketako Zuzendaria



***Zein egoeratan aurkitzen da orain Miguel Altuna LHII?**

Instalazio berrietara oso ondo egokitu gara, Covid egoerak oraindik nahiko baldintzatzen gaituen arren, eta azkenengo urteetan egindako lanari etekin handiagoa ateratzen diogu hemen. Eraldaketa digitaleruntz ere oso pauso garrantzitsuak ematen ari gara eta honelako lanketak etorkizunari aurre egiten asko lagunduko digute.

Ikasle kopuruari dagokionez, azken urteetan ikasleentzako aukerak eta ikasle kopurua nahiko igo dira eta dinamika hau mantentzen saiatzen ari gara.

***Zein berrikuntza izango ditugu hurrengo ikasturtean?**

Ikaskuntza sistemari dagokionez, DUAL formatoak indar gehiago hartzen doa eta lehenengo mailako ikasleak 128 ordu beteko dituzte enpresetan (aurtengo kurtsoan talde batzukin hasiko gara).

Berrikuntza teknologikoari dagokionez, baliabideak etengabe berritzen ari gara eta datorren kurtsorako ere hainbat berri izango ditugu (Robot, gela interaktibo eta inmertsibo berria, makina-erreminta, neurketarako makina berriak, etab.).

Bestalde, espazioz ere juxtu gabiz eta ikasleentzako gune berriak sortzeko azterketa egin eta espazio hoiek sortuko ditugu.









Pasa den abenduaren 22an, Kutxa Fundazioak antolatzen duen “Ikasketa Amaierako Sariak” online ekitaldian parte hartu zuten Agotz Iturbe Murgiondo eta Alayn Carazo Iturriagak Miguel Altunako ikasle oihek. Izan ere, 2020-21 ikasturtean Miguel Altunan “Mekatronika Industriala” heziketa zikloko espediente akademiko onena lortu zuen Agotzek eta Automatizazioa eta Robotika Industrialeko espediente onena Alaynek. Biekin hitzegiteko aukera izan dugu.



* Agotz Iturbe Murgiondo

Miguel Altunako Mekatronika Industrialeko ikasle ohia.

* **Lehenik eta behin, zorionak merezitako errekonozimenduagatik. Espero zenuen? Zer sentitu zenuen honen berri jakitean?**
Lehenik eta behin eskerrik asko!!
Egia esan ez nuen espero, sorpresa handia izan zen. Poz handi sentitu nuen, bi urteko lan gogorraren sari bezala jaso nuen. Gogor egindako lanaren saria.

* **Zure kasuan, gainera, meritu bikoitza daukazu, ikasketak eta lana txandakatu duzulako, Dualean parte hartu baituzu. Zer moduz eraman dituzu ikasketak? Eta lana? Ondo moldatu zara?**
Egia esan oso gustora aritu naiz ikasten eta lanean. Ikasketak oso ondo eraman ditut,beste esparru batetik nentorren eta ikasketak erabat berriak ziren niretzat. Lanean ere oso gustora aritu naiz, lantegietan esperientzia neukan baina esan bezala beste esparru batean baina oso aberasgarria izan da esperientzia.
Lana eta ikasketan uztartzeko ezinbestekoa izan da ondo kudeatzea denbora eta ongi antolatzea bai aste barruan eta baita asteburuetan ere. Ez dut ukatu googorra izan denik baina era berean oso gomendagarria.

* **Mekatronika ikasten hasi aurretik, lan munduan jardun zenuen. Lanean aritu izanak abantaila izan da, zer eragin izan du zure ikasketetan?**
Ikasten nengoen bitartean abantaila izan da dudarik gabe. Institutuan ikasitako teoriak lanean aplikatu ahal izan ditut eta errealitaten ikusi, ez liburu edo teorian bakarrik. Ikasketak gustura egitea ahalbidetu dit,ikasitakoaren alde praktikoa ikusi ahal izan dudalako.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

* Agotz Iturbe Murgiondo

Miguel Altunako Mekatronika Industrialeko ikasle ohia.

*** Eta orain, zertan ari zara? Ikasten? Lanean?**

Momentu honetan lanean dihardut bai, Duala amaitu eta egun gutxira lanean hasi nintzen eta lanean dihardut. Ikasten jarraitzeko aukera ez nuen baztertu, espezializazio kurtso bat egitea otu zitzaidan baina amaitualaz bat lana aurkitu nuen eta ideia hau baztertu nuen.
Gazteagoa banintz ikasten jarraituko nukeen, goi mailako beste heziketa zikloren bat edota espezializazio kurtsoren bat.

*** Zer egin duzu sariarekin?**

Sariarekin bazkari bat egin nuen etxekoekin eta lagunekin ere ospatu nuen.
Eta niretzako ere “kapritxo” bat edo beste egin dut.

*** Ezer gehiago esan nahi duzu?**

Lehenengo mailan ikasten daudenei Dualaren aukera,
aukera itzela dela esango nieke, eta ahal duten guztiei gomendatuko nieke!

Bada eskerrik asko, eta saria gozatu!



MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

* Alayn Carazo Iturriaga

Miguel Altunako Automatizazio eta Robotika Industrialeko ikasle-ohia



* **Lehenik eta behin, zorionak merezitako errekonozimenduagatik. Espero zenuen? Zer sentitu zenuen honen berri jakitean?**
Egia esan ez nekien sari hau existitzen zenik eta ez zitzaidan burutik pasa ere, beraz sorpresa bat izan zen. Sari ekonomikoaz gain, horrelako errekonozimendua jasotzea oso polita da

* **Zure kasuan, gainera, meritu bikoitza daukazu, ikasketak eta lana txandakatu duzulako, DUALean parte hartu baituzu. Zer moduz eraman dituzu ikasketak? Eta lana? Ondo moldatu zara?**
Lana ikasketekin txandakatzeak denbora eta exijentzia gehiago eskatzen du. Urte asko pasa ditut tornuetan lanean goi mailako fabrikazio mekanikoko produkzioa ikasi ostean eta ARI-ra saltoa egitea erabaki nuen, aldaketa oso garrantzitsua izan zen niretzat, pentsa ez nekiela ezta kontaktore bat zer zen, beraz oso mentalizatuta egon naiz hasieratik ahalik eta gehien ikasteko. Azkenean esperientzia polita izan da niretzat.

* **Eta orain, zertan ari zara? Ikasten? Lanean?**
Kurtsoa bukatu eta segidan lanean hasi naiz, 2 urte hauetan ikasi dudana praktikan jartzen.

* **Musika munduan ere zabiltza, ezta? Kontaiguzu zerbait (musika estiloa...)**
Hala da, Sintetizadore eta gitarra-jole bezala, duela bi urte, Urretxu-Zumarragako Isuo musikariarekin Hegazkin izeneko elektro-pop taldea sortu genuen.
2021eko maiatzean lehen diskoa kaleratu genuen Haize beltzak izenekoa eta kontzertu batzuk ere eman ditugu urtean zehar Euskal Herriko areto desberdinetan. Mukuru.eus –en jarraitu ahal dituzue gure berriak.

* **Zer egin duzu sariarekin?** Gurasoei oparia egin.

Bada eskerrik asko, eta saria gozatu!

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

* Fabrikazio Adimenduna Espezializazioa ezagutzen?

Espezializazio kurtsoko lan taldeari elkarrizketa



*** Aurten lehenengo aldiz eskaini da Fabrikazio Adimendunaren espezializazioa. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?**

Aberasgarria eta polita. Gure helburua da ikasleak teknologia berrietara, fabrikazio adimentsura, gerturatzea. Ikuspegi orokorra izatea eta teknologia desberdinak ezagutzea garrantzitsua da eta hori lortzen ari gara.

Jaso ditugun feedback-ek ikasleak pozik daudela adierazten dute eta horrek indarra ematen digu.

Teknologia oso azkar garatzen ari da, eta gu ere erritmo horretara moldatu nahian ari gara. Guzti hau, gainera, Eskolarako bertarako ere ondo datorrela uste dugu, teknologiaren noranzkoa zein den jarraitzera behartzen gaituelako.

*** Punta-puntako teknologia daukazue eskura, gela inmersiboa eta interaktiboa horien artean. Erabilgarriak al dira ikaskuntza prozesurako?**

Momentu honetan erakusleiho bezala ulertu behar dira aipatu dituzun teknologia bi horiek; zelako potentziala izan dezaketen ikusteko fasean gaudela uste dugu.

Gela inmersiboa hurrengo urtean erabilgarri izateko lanean ari gara; gure tailerra errealitate birtualera ekartzen dihardugu, hurrengo urteko ikasleekin ariketak sortu ahal izateko.

Gela interaktiboa, berriz, erronkak lantzeko baliagarria izan daiteke.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa

zure zubia

* Fabrikazio Adimenduna Espezializazioa ezagutzen?

Espezializazio kurtsoko lan taldeari elkarrizketa

*** Zuen espezializaziora sartu ahal izateko, aurretik Goi mailako Heziketa Ziklo bat ikasi behar izan dute ikasleek. Zer perfileko ikasleak dituzue?**

Ziklo desberdinetatik etorri dira ikasleak, fabrikazio mekanikoko eta elektronikako familietatik gehienbat; nahasketa horrek aldagai asko sartu ditu taldean.
Dena den, espezializazioaren bitartez ikasleen motibazioa bilatzen da, gero badakigulako bakoitzak bere bidea hartuko duela. Azken finean, zubi bezala ulertu behar dira ikasketa hauek, bakoitzaren gustu eta preferentziak perfilatzeko eta etorkizunean zertan sakondu nahi luketen erabakitzeko.
Hortaz gain, goi mailako ziklo bateko titulua duen ikasleak balio erantsia lortzen du espezializazio programa honen bitartez, eta uste dugu lan-mundurako sarbidea erraztu dezakela.



Testuingurua ulertzea ere garrantzitsua da. Lanbide heziketa eraldaketa betean dago, kurrikulumak ez dira etorkizunera ondo egokitzen, ... eta espezializazio programak sortu dira eraldaketa hori gauzatzeko. Eraldaketa hori bera enpresetan ere gertatzen ari dela ikusten dugu, etorkizunerako apustua da, beraz. Eskolari dagokio palanka lana egitea eraldaketa errazteko; fabrikazio adimentsua bezalako espezializazio programa batean lantzen diren kurrikulumak, ondoren ziklo desberdinetan txertau ahal izango direla uste dugu. Ikasleen perfila etorkizuneko enpresara egokitzeko lagungarri izango den pauso gisa ulertu behar dira espezializazio programak, epe luzera begirako bideak.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

*Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa

Mikel Bayer, Miguel Altuna LHIIko irakasleari elkararizketa.



***Zer da instalazio fotovoltaikoa?**

Eguzkiaren energia aprobetxatuz, elektrizitatea sortzen duen instalazioa da, horretarako, plaka fotovoltaikoak erabiltzen dira besteak beste.

***Zer da autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa?**

Autokontsumorako instalazioan, eraikinean sortzen den energia bertan kontsumitzen da. Modu horretan, garraioan ematen diren galerak asko murrizten dira.

Oso interesgarria ikusi genuen eskolarako, argi-orduetan eskola martxan dagoelako eta sortzen den guztia bertan aprobetxatzen delako. Izan ere, instalazio mota hau oso interesgarria da egunez martxan dauden lantokietan, energia elektrikoa modu berriztagarriaz sortzeaz gain, faktura elektrikoan aurrezpen bat egoten delako.

***Nondik irten zen instalazio fotovoltaiko honen beharra?**

Trantsizio energetiko momentu batean bizi garela uste dugu eta trantsizio hori berriztagarrietara egitearen aldekoak gara. Gure ekarpena egitea nahi genuen eta instalazio hau proiektatu genuen. Aurreikusten dugu instalazio honekin eskolan kontsumitzen dugun energia elektrikoaren %20tik gertu sortuko dugula modu jasangarrian.

Gainera, inbertsioaren erdia gutxi gorabehera Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaz ordaindu da. Beste erdia eskolak ordaindu du eta faktura elektrikoan aurreratuko dugunarekin, instalazioa laster amortizatuko dela aurreikusten dugu.

***Zeintzuk dira instalazioaren ezaugarriak?**


36kWeko instalazioa da eta 455Wp-ko 84 panelez osatuta dago, guztira 38.22kWp. Urtean 40 bat MWh sorduko dira. Autokontsumo koefizientea % 90 koa aurreikusten dugu, hau da, sortuko den energiaren % 90 bertan kontsumituko da. Kontuan eduki behar da momentu batzuetan ezingo dala kontsumitu sortzen den energia guztia (asteburuetan, gabon oporretan, abuztuan...)

Lehenbizi, Miguel Altuna LHIIko urteko kontsumoa aztertu genuen. Hortik dimentsionatu genuen instalazioa.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa zure zubia

*Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa

Mikel Bayer, Miguel Altuna LHIIko irakasleari elkarrizketa



***Ikasleek badaukate instalazio honen berri?**

Bai, noski. Sistema monitorizatuta dago. Momentuoro ikusi daiteke kontsumoa eta generazio kurbak. Oso material potentea dugu zeharkako baloreak lantzeko: Kontsumo arduratsua, aurrezte energetikoa, aldaketa klimatikoa, aztarna ekologikoa, jasangarritasuna... bide batez GIH2030 helburu desberdinak lotzen ari gara.
Datuak egunero gordetzen dira eta aurreikuspenak kontrastatzeko ere baliatzen dugu muntaia.
Gainera, beste instalazio txikiago bat daukagu konektatuta (2.5kW). Honetan generazioaren jarraipena egiteaz aparte, muntaketa lanak egiten ditugu, bai goizeko klaseetan baita arratsaldez eskaintzen ditugun ikastaroetan ere.



***Hurrengo erronka zein?**

Orain eskolako kontsumoa jaitsi nahiko genuke. Horretarako, beste proiektu bat martxan daukagu. Eraikinaren energia-eraginkortasuna hobetu nahi da, atalka kontsumoak neurtu eta ahal izanez gero jaitsi.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

2. Albiste izan dira...

20/22 ikasturte hasiera modu mailakatuan

Comenzamos el curso 21/22 de forma escalonada



Tailerrak LH-ko ingeles irakasleentzat Kyjoven, Txekian

Talleres para el profesorado de inglés de FP en Kyjoven, Chequia



Txekiar Errepublikako LHko 13 ordezkari gure ikastetxea ezagutzen

13 representantes de la FP de la Rep. Checa conociendo nuestro centro



BEHAR EKIN egitasmoa LHL eta IMME Elkarteekin elkarlanean

Proyecto BEHAR EKIN en colaboración con las asociaciones LHL e IMME



Balear Irletako LHko ordezkarien bisita jaso genuen

Recibimos la visita de representantes de FP de las Islas Baleares



Gaztela Leongo LHko arduradunen bisita jaso genuen

Recibimos la visita de los responsables de FP de Castilla León



LHko zentroetako irakasleen topaketa

Encuentro del profesorado de centros de FP



Lan praktikak atzerrian egiteko aukera martxan Erasmus+ekin

En marcha la realización de prácticas laborales en el extranjero con Erasmus+



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Basoaren erabilera curricularra: Agenda 2030eko 15. helburua lantzen

Uso curricular del bosque: Trabajando el objetivo nº 15 de la Agenda 2030



Zientzia,Teknologia eta Berrikuntza jardunaldietan partaide

Participación en las jornadas de Ciencia, Tecnología e Innovación



Fabrikazio Aurreraturi loturiko Nazioarteko Jardunaldian aurkezpena egin genuen

Presentación en la Jornada Internacional de Fabricación Avanzada



EuskoSkills 2021 Txapelketan maila altua erakutsi dute gure ikasleek

Nuestro alumnado ha demostrado un alto nivel en el Campeonato EuskoSkills 2021



Prest dugu enpresei zuzenduriko Berdintasun Autodiagnosi Erreminta

Hemos preparado una herramienta de Autodiagnóstico para la Igualdad dirigida a las empresas



Simulazio-ingurune interaktiboak lantzen nazioarteko DigitalVet egitasmoan

Trabajando entornos interactivos de simulación en proyecto internacional DigitalVet



Zuzendaritzari Laguntzako ikasle taldeak Orona Ideon izan dira

Estudiantes de Asistencia a la Dirección en la empresa Orona Ideo



Forjaketa Prozesuen espezializazioko ikasleak FEGAR eta GOL enpresetan izan dira

Alumnado de Especialización en Procesos de Forja han estado en FEGAR y GOL



Albiste izan dira...

Fabrikazio Adimenduna espezializazioko ikasleak Elektra enpresa bisitatu dute

Estudiantes de especialización en Fabricación Inteligente visitan la empresa Elektra



Zientzia,Teknologia eta Berrikuntza jardunaldietan Fabrikazio Adimenduna hizpide

Charlas sobre la Fabricación Inteligente en las jornadas ZTB Innovación



Miguel Altuna ere Gizatasun, Teknologia eta Adimenaren aroan

Estamos en la era de la Humanidad, Tecnología e Inteligencia



Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasleak gure Forjaketan ikasten

Alumnado de la Escuela de Ingenieria de Bilbao aprendiendo sobre Forja



Azaroak 25: Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

25 de Noviembre:Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres



Praktika onak partekatzen INNOVET nazioarteko proiektuan

Compartiendo buenas prácticas en el proyecto internacional Innovet



Fabrikazio Adimenduna Espezializazioko ikasleak Createch Medical enpresan

Estudiantes de Fabricación Inteligente conociendo la empresa Createch Medical



Administraritzako ikasleak Lacor Ibili enpresa ezagutzen

Alumnado de Administrativo conociendo la empresa Lacor Ibili



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Euskadiko Lanbide Heziketako hainbat ikastetxeetako ordezkarien bisita jaso dugu

Hemos recibido la visita de representantes de varios centros de FP de Euskadi



Mekatronika eta Produkzioaren Programazioko ikasleak CMZ enpresan

Alumnado de Mecatrónica y Progr. de la Producción han visitado la empresa CMZ



EAEko TKgune koordinatzaileen formazioa

Formación de coordinadores/as de TKgune de FP Euskadi



Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen abenduaren 3an



Kualifikazio eta Gaitasun Berriei buruzko BILT Learning Forum Nazioarteko Azoka birtualean mahaia

Stand en la feria Internacional Virtual BILT Learning Forum sobre Nuevas Cualificaciones y Competencias



Miguel Altunako 1.Argazki Lehiaketa izan genuen abenduan

En Diciembre tuvimos el Primer Concurso Fotográfico de Miguel Altuna



Administraritzako ikasle taldea Lacor Ibili logistika enpresan

Estudiantes de Administración en la empresa Lacor Ibili logística



Langile eta langabetuentzako ikastaro berri gehiago martxan

Nueva convocatoria de cursos para personas trabajadoras y en situación de desempleo



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Zuzendaritzari Laguntza taldeko ikasleak Enpresa Ekitaldien Antolamendua lantzen

Alumnado de Asistencia a la Dirección trabajando el módulo de Organización de Eventos Empresariales




Etengabeko Ikaskuntzako Bizikasi zerbitzuak martxan darrai

Continuamos con el Servicio de Aprendizaje Permanente Bizikasi



Galiziako Xuntako eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak gurean

Representantes de Educación de la Xunta de Galicia y del Gobierno Vasco



Zuzendaritzari Laguntzako ikasleak Ekitaldien Antolamendua modulua lantzen

Alumnado de Asistencia a la Dirección trabajando en torno a la Organización de Eventos



Miguel Altunako "GARBI SLS", Enpresa Simulatuen Azokan

"GARBI SLS" de Miguel Altuna en la Feria de las Empresas Simuladas



Nafarroako Gobernuko Lanbide Heziketako ordezkarien bisita

Visita de la Delegación de FP del Gobierno de Navarra



Bergarako Udalak bultzatutako Lan Mundu Mahaiko bileran partaide

Participación en la Mesa del Mundo Laboral impulsada por el Ayuntamiento de Bergara



ORKLI enpresaren eskutik, Ekoizpenaren Kudeaketa erreala

Gestión de la Producción en la realidad, de la mano de la empresa ORKLI



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Canal 24 hs kateko REPOR saiorako grabaketak

Grabación del programa REPOR de Canal 24hs



Langile taldea inguruak txukundu eta garbitzeko lanak egiten

Personal de Miguel Altuna realizando tareas de limpieza



Erasmus+ programaren bidez lan-praktikak atzerrian berriz martxan

Vuelven las prácticas en el extranjero con Erasmus+



Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteari esker, odola emateko aukera

Oportunidad de donar sangre con la Asociación de Donantes de Gipuzkoa



Andaluziako Hezkuntza eta LHko ordezkarien bisita jaso genuen

Recibimos la visita de la representación de Educación y FP de la Junta de Andalucía



Aramaixoko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak Escape Roomean

Alumnado de 5º de primaria de Aramaixo en el Escape Room



Aranzadi Ikastolako Batxilergoko ikasleen bisita jaso genuen

Recibimos la visita de estudiantes de Bachiller de Aranzadi Ikastola



Administrazio Kudeaketako ikasleak enpresa mota desberdinak lantzen

Alumnado de Gestión Administrativa trabajando los diferentes tipos de empresa



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

AGNH (TDAH) diagnostikoa duten ikasleen jarraibideak hobeto ezagutzeko formazioa

Formación para un mejor conocimiento de las pautas del alumnado con diagnóstico AGNH (TDAH).



Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna

Día Internacional de la Mujer y la Niña en la Ciencia



Langile talde bat MOVEMBER nazioarteko mugimenduan partaide

Grupo de trabajadores con el movimiento internacional MOVEMBER



"Basoak eta erabilera curricularra" formazio saioa

Sesión formativa sobre "los bosques y su uso curricular"



Bikaintasuna Lanbide Heziketako Zentroeko Fabrikazio Aurreratuan

Excelencia en la Fabricación Avanzadade la FP



Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko saioa Mugarik Gabeko Ekonomilarien eskutik

Sesión sobre Economía Social y Solidaria a cargo de Economistas Sin Fronteras



EXAM4.0 egitasmoko emaitzak ikusgai: https://examhub.eu/

Publicados los resultados de EXAM4.0: https://examhub.eu/



Mikel Ugalde Ugarteren senideen saminarekin bat egiten dugu

Nos sumamos al dolor de los familiares de Mikel Ugalde Ugarte



Albiste izan dira...

Ikastetxe inguruak txukuntzen aritu zen administrariztako ikasle talde hau

Este grupo de estudiantes de administración se dedicó a limpiar los alrededores del centro



Ikaslan bekarekin Erasmus+ praktikak atzerriko herrialdeetan

Prácticas en el extranjero a través de Erasmus+ y becas de Ikaslan



Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko saioa Mugarik Gabeko Ekonomilariekin

Sesión sobre Economía Social y Solidaria a cargo de Economistas Sin Fronteras



Kroaziako Electrical Engineering and Traffic School Osijek-eko irakasle taldearen bisita jaso dugu

Hemos recibido a un grupo de profesorado de Electrical Engineering and Traffic School Osijek de Croacia





1976ko urritik 2021eko abendura arte, 45 urtez Miguel Altunako idazkaritzan lanean aritu zaigun Bego Barrena lankideari iritsi zaio erretiroa hartzeko garaia.

ESKERRIK ASKO guztiagatik eta denbora libreaz gozatu!

Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus



“LH DuaLa Euskaraz” aitortza ekitaldia

LH DuaLa Euskaraz” aitortza ekitaldia izan genuen Miguel Altuna LHIIn pasa den otsailaren 18an. Euskararen erabilera zabaltzeko ahaleginean erreferente diren Gipuzkoako lantoki eta Lanbide Heziketako ikastetxe eta ikasleei beraien jarduna aitortu zitzaien.

Ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eta LANEKI elkarteko ordezkariek parte-hartu zuten, Gipuzkoako diputatu nagusia, Markel Olano, buru zutela.

Ikasle, ikastetxe eta lantokien esperientziaren berri izan genuen eta Goizper Group, Astigarraga Kit Line eta VIVEbiotech, sarituak izan ziren.

Informazio guztia: www.maltuna.eus





El evento de reconocimiento “LH DuaLa Euskaraz”

El pasado 18 de Febrero se celebró en ele Miguel Altuna LHII el evento de reconocimiento “LH DuaLa Euskaraz”. En este acto se reconoció la labor de centros de trabajo, alumnado y centros de enseñanza de Formación Profesional referentes en el impulso del uso del euskera en Gipuzkoa.

El evento contó con la participación de representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, las viceconsejerías de Formación Profesional del Departamento de Educación y de Política Lingüística del Gobierno Vasco, así como de la asociación LANEKI, que estuvieron encabezados por el diputado general de Gipuzkoa, Markel Olano.

Se presentaron las buenas prácticas del alumnado, centros de FP y centros de trabajo y se reconoció el trabajo que realizan las empresas Goizper Group, Astigarraga Kit Line y VIVEbiotech,

Toda la información en la web www.maltuna.eus

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

3. Lanbide Heziketan aldaketa

Lanbide Heziketako lege aldaketaren aurrean informazio kanpaina martxan. Bideoa ikusi nahi?

Ikusi gure web orrian!
www.maltuna.eus



En marcha la campaña informativa ante el cambio legislativo en la Formación Profesional.

¿Quieres ver el vídeo?
¡Consulta en nuestra página web! www.maltuna.eus



4. Agenda



MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE / PRIORIDAD PERSONAS TRABAJADORAS EN ACTIVO

FABRIKAZIO MEKANIKOA / FABRICACIÓN MECÁNICA

DENOMINACIÓN		ORDUAK	DATAK
MF0106_3	PRODUKTUAK AUTOMATIZATZEA AUTOMATIZACIÓN DE PRODUCTOS	210	2021/12/20 - 2022/05/23
UF0883	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA VERIFICACIÓN DEL PRODUCTO MECANIZADO POR ARRANQUE DE VIRUTA	30	2022/01/17 - 2022/02/01
UF0876	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK. Planoen irakurketa ESPECIFICACIONES TÉCNICAS EN PROCESOS DE MECANIZADO POR ARRANQUE DE VIRUTA. Int. planos	60	2022/02/21 - 2022/03/29
UF0454	DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ ELABORACIÓN DE DOCUMENTACIÓN TÉCNICA, EMPLEANDO PROGRAMAS CAD-CAM PARA FAB MECANICA	90	2022/02/21 - 2022/04/07
FMEH0075OH	EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONALA VERIFICACIÓN TRIDIMENSIONAL M-COSMOS	30	2022/03/07 - 2022/03/22
UF1129	MEKANIZAZIO-PROZESUEN KOSTUAK COSTES DE LOS PROCESOS DE MECANIZADO	40	2022/03/07 - 2022/03/29
UF0878	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK,TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTZIONALA / PREP.MÁQUINAS, EQUIPOS Y HTAS EN OPERACIONES DE MECANIZADO CONVENCIONAL	80	2022/04/04 - 2022/05/30
MF0591_3	SISTEMA AUTOMATIKOAK FABRIKAZIO MEKANIKOAN SISTEMAS AUTOMÁTICOS EN FABRICACIÓN MECÁNICA	80	2022/03/21 - 2022/05/11

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA / ELECTRICIDAD Y ELECTRÓNICA

OC21200149	AUTOMATAK PROGRAMAGARRIAK AUTOMATAS PROGRAMABLES	60	2022/05/02 -2022/06/02

ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA / ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN

UF0320	TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK APLICACIONES INF DE TRATAMIENTO DE TEXTOS. WORD	30	2022/03/14 -2022/03/29
UF0321	KALKULU-ORRIETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK APLICACIONES INF DE HOJAS DE CÁLCULO. EXCEL	50	2022/04/25 -2022/05/23

LEHENTASUNA: LANGABETUAK - GAITASUN ZIURTAGIRIAK / PRIORIDAD DESEMPLEADOS - CERT. PROFESIONALIDAD - PRACTICAS EN EMPRESA

FMEE0108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK/OPERACIONES AUXILIARES DE FABRICACIÓN MECÁNICA	400	2022/01/31 -2022/05/16

BESTELAKOAK - LANGABETUENTZAKO / OTROS - PARA DESEMPLEADOS

ELKAR-EKIN LANEAN	OINARRIZKO GIZARTE- ETA LAN-TREBAKUNTZAK/ HABILIDADES SOCIALES Y LABORALES BÁSICAS	140	2022/01/17 - 2022/05/04
	BILTEGI KUDEAKETA / GESTIÓN DE ALMACÉN	210	2022/01/31 - 2022/04/01

Agirrebidea,2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa) Tef: 943899272 – 688815070 ikastaroak@maltuna.eus

Agenda



WFCP 2022 jardunaldiak ekainaren 15etik 17ra.

"WFCP2022" jardunaldiak izango dira Donostian World Federation College and Polytechnics eta TKNIKAk (Euskadiko Lanbide Heziketaren Ikerketa Aplikatuko Zentroa) antolatuta.

Informazio guztia:

https://www.wfcp2022.eus/en

Jornadas WFCP 2022 del 15 al 17 de Junio.

Del 15 al 17 de junio se celebrarán en San Sebastián las jornadas WFCP2022, organizadas por World Federation College and Polytechnics y TKNIKA (Centro de Investigación Aplicada de la Formación Profesional del País Vasco).

Toda la información:


https://www.wfcp2022.eus/en

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

5. Denbora pasa

BERBAXERKA ezagutzen?

Euskaldunak biziatu dituen azken jokoa



https://berbaxerka.gitlab.io/

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia

Hurrengo atea: 2022ko ekainean izango dugu

Kontaiguzu!

Zer iruditu zaizu aldizkari hau? Iritzia eman edo ekarpenen bat egiteko, idatziguzu komunikazioarduraduna@maltuna.eus helbidera.

Eta Miguel Altuna Lanbide Heziketako langilea edo ikaslea bazara, zuk ere parte hartu dezakezu aldizkari honetan!

Nola? Ikastetxeari edo ikasketei loturik, albiste izan daitekeen irteera, lehiaketa, sari, bisita,... egiten baduzu,

komunikazioarduraduna@maltuna.eus helbidera bidaliz (informazio labur bat eta argazki batzuk, posible bada).



KOMUNIKAZIO TALDEA
komunikazioarduraduna@maltuna.eus

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
zure zubia